

UDAL AREA-SAILA-ERAKUNDEA:	Kirol Patronatua
INSTRUKTOREA:	Itxaro Zabala (Kirol Patronatuko zuzendaria)
BALORAZIO BATZORDEA	<p>Irene Ormaetxea (Amaia Elorza ordezkoa),</p> <p>Aritz Abaroa (Pedro Bilbao ordezkoa)</p> <p>Xabi Ortuzar (Iker Aguado ordezkoa)</p> <p>Itxaro Zabala</p>
DIRU-LAGUNTZA ARLOA:	Kirol taldeen jarduera arrunta finantzatzeko diru-laguntza programa
KODEA:	2016/04-01
AURREKONTUAN ZEHAZTUTAKO DIRU-KOPURUA:	15.000 €
HELBURUA:	<ul style="list-style-type: none"> • Ohiko kirola sustatu herritarren osasuna areagotzeko eta gizarte-harremanak eta bizi-kalitatea hobetzeko. • Elkartegintza bultzatu • Herritarren aukerak kirola praktikatzeko areagotu elkarteen laguntzarekin. • Kirol praktika federatuari bultzakada eman bere emaitzak eta antolaketa optimizatuzeko.
ESKATZAILEAK:	ESPEZIFIKAZIOAK: Helbide soziala eta bere ohiko kirol jarduera Bermeon duten kirol elkarteak. Taldeek %30etik gorako autofinantzaketa izan beharko



	<p>dute.</p> <p>BAZTERTZEAK: Dirulaguntza eskatzen daberen kirol taldeen jokalariei batek be ezin izango dau dirurik kobratu kirola egitearren.</p>
<p>ESKARIAK ETA AURKEZTEKO EPEA:</p>	<p>Eskariak aurkezteko hilebeteko epea egongo da, honeek oinarriak «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratzen diranetik hasita.</p> <p>Aurkeztu beharreko dokumentuak, (eranskinak euskaraz):</p> <ul style="list-style-type: none">a) Eskatera instantzia behar bezala osaturik (1go ERANSKINA)b) IFK-ren kopia eta kirol taldearen estatutuak aurreko urteetan ez badira aurkeztu.c) Ogasun Sailaren eta Gizarte Segurantzaren ziurtagiria esanez egunean daudela betebehar fiskaletan eta Gizarte Segurantzaren.d) Aurreko urtean eginiko jardueren txostena. Txostenaren gehienezko luzera 4 orrikoa izango da. Taldeko kiroletako taldeak zenbat talde eta zein mailatan lehiatu diren espezifikatu beharko dute. Atal honetan zehaztu beharko da euskararen erabilera kirol jardueretan (entrenamenduak, publikidadea...)e) Jardueren sarrera eta gastuen balantzea aurkeztu beharko da, non agertu beharko da ze neurri ekonomikoez lagundu diren ekintzak aurrera eramateko (kuotak, bestelako dirulaguntzak, eskari zehatza, etab.) eta gastuen jatorria (bidaiak, kirol materiala, federazioak sortutako gastuak...)(2. ERANSKINA). Puntu honekin batera faktura orijinalak edo fotokopia konpultsatutakoak aurkeztu behar dira. (Udaleko Berh@z bulegoan eta Kirol Patronatuan konpultsak egiten dira).f) Taldeko kirolari federatuen zerrenda, beti ere, 2015-2016 denboraldian zehar 14 urte betetzen dituztenak barne. Zerrenda hau federazioak sinatutako orrialde batean agertu beharko da hurrengo datuez horniturik: jaiotze data, helbidea duen herria eta parte hartu duen lehiaketak edo kirolari bakoitzaren fitxaren kopia eta parte hartu duen lehiaketako aktaren kopia bat, baina beti eskatzen diren datuak islatuz (jaiotze data eta bizi den herria).g) 2015-2016 denboraldian aktiboki dauden entrenatzaileen zerrenda eta zein den beraien titulazioa. Titulazio ofizial originala ekarri beharko da Kirol Patronatuak konpultsatzeko.h) 2016-2017 denboraldirako taldeak dituen egitasmoak. Talde kiroleko taldeak, denboraldi horretan izango dituen talde kopurua eta kategoria islatu



beharko dute (gehienez 2 orri).

i) 2016-2017 denboraldirako taldeak dituen aurrekontu eta gastuen aurreikuspena (3. ERANSKINA)

j) 2015-2016 denboraldian zehar aurrera eramandako jarduerak: eskola-kirola bultzatzeko lankidetzeta, herrian kirola bultzatzeko eginiko ekintzak bere kabuz edota Udalaren Kirol Patronatuaren laguntzagaz (4 ERANSKINA). Puntu honetan erabilitako publikidadearen kopiak erantsi behar dira: programak, kartelak, argazkiak, kamisetak, etab. Euskarri hauetan guztietan Udalaren Kirol Patronatuaren logoa agertu beharko da.

**BALORAZINO
ERISPIDEAK:**

1. Federatutako taldeko:

— Lurraldeko lehiaketatan dagozanengaitik: 10.

— Autonomia erkidegoko lehiaketatan dagozanengaitik: 20.

— Estatuko lehiaketatan dagozanengaitik: 30.

2. Federatutako kirolari bakotzeko helbidea Bermeon izanik:

— Banakako kirolean: 02.

— Taldeko kirolean: 01.

— Euskadiko selekzioan dagoan kirolari bakotzeko: 01.

— Euskadikoaren ganetik dagoan selekzioaren baten dagoan kirolari bakotzeko: 02.

3. Entrenatzaileko:

— Erdi mailako hasiera zikloko teknikaria edo I.go nibela: 03.

— Erdi mailako bukaera zikloko teknikaria edo II nibela: 06.





— Goi mailako teknikaria edo III.nibela: 10.

4. Herritar danen parte hartze aktiborako eta Bermeoko Udalaren Kirol Patronatuaren edota Udalaren dirulaguntza gabeko, kirol jarduera antolakuntza bakoitzagatik: 2.

5. Ikastetxeakaz eskola-kirola bultzatzeko lankidetzengaitik, jarduera bakoitzagatik: 2.

6. Kirol jarduerak sustatzeko Bermeoko Udalaren Kirol Patronatuagaz



	<p>lankidetzan arituta antolatutako kirol jarduera bakoitzagatik: 2.</p> <p>7. Areneko udal kiroldegia derrigor erabili behar daben klub bakoitxeko federaduen %25 puntuauko dira.</p> <p>Programako diru-laguntza kopuru gehienezkoa: %70</p> <p>Beharrezko gutxienezko puntuaketa: 10 Puntuak gehienez 60 euroko balioa izango du.</p>
<p>DIRUZ LAGUNGARRIA DAN KONTZEPTUA:</p>	<p>BAZTERTZEAK: Dirulaguntza ezingo da erabili kirolariei ordaintzeko, primetarako, oparietarako, protokolo ekintzetarako eta bazkarietarako.</p>
<p>ERLAZIONATUTAKO AGIRIAK:</p>	<div style="display: flex; justify-content: space-around; align-items: center;"> <div style="text-align: center;">  01-1 eskaria egiteko instanzia.docx </div> <div style="text-align: center;">  01-2 Aurreko urteko kitapena.docx </div> <div style="text-align: center;">  01-3 Datorren denboraldirako aurrei </div> <div style="text-align: center;">  01-4 jarduera paraleloak.docx </div> </div>

